

Euskadiko Antzoki SAREAko programatzaileei musika proiektuak aurkezteko deialdia

Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak (EHMBE-k), SAREAko programatzaileen eta musikaren sektoreko profesionalen arteko topaketaren laugarren ediziorako musika proposamenak aurkezteko epea ireki du.

Ekimenaren helburua: Antzokietako programatzaileen eta interesa duten musika eragileen arteko topaketaren esparruan: deialdiaren ezaugarriak betetzen dituzten **2021-2022rako musika-emanadiak eskuragarri izatea.**

Euskadiko Antzoki SAREAko antzokietan musika-programazioa eta kontratazioa sustatzeaz gain, SAREAko programatzaileek eta musikaren sektoreak elkar hobeto ezagutzea sustatu nahi dugu.

Topaketaren formatua: Aukeratutako proiektuen ordezkariak bere **musika-proiektuen aurkezpenak 10 minututan** egingo dizkiete SAREAko programatzaileei. Zuzeneko emanaldiak dituzten aurkezpenak lehenetsiko dira. Horretarako, aretoak musika set bat izango du. Hautatutako taldeek eta/edo artistek 100 euroko laguntza jasoko dute Musika Bulegotik, dietak eta joan-etorriak ordaintzeko. Beste material batzuk ere erabili ahal izango dira, hala nola fitxak, ikus-entzunezko euskarria.

Eguna eta tokia: **Ekainak 2 Arriola Antzokia. (Elorrio - Bizkaia). Goizeko jardunaldia.**

Norentzat: Haien jarduera profesionala musikagintzan burutzen duten eta fakturatzeko ahalmena duten (musikariak, sustatzaileak, agentziak, managerrak, diskoetxeak, etab.) Musika Bulegoko bazkideak (zuzenak zein zeharkakoak).

Musika-ikuskizunek topaketan parte hartzeko izan behar dituzten ezaugarri nagusiak.

- ❖ Musika-proposamen berriak, originalak edo bereziak.
- ❖ Barruko agertokietara egokitutako musika-proposamenak.
- ❖ 2021-2022eko emanaldietarako prest egongo diren proposamenak.

Eskatutako informazioa: Hurrengo formularioa bete: <https://forms.gle/R6nZAZrfd61dsCaZA>

Epeak: Proposamenak **apirilaren 15ak arte** (14.00) aurkeztu daitezke. Data honetatik aurrera ez da proposamenik onartuko. Hautatutako proiektuak maiatzaren erdialdean jakinaraziko dira.

Aukeratzeko irizpideak: Musika Bulegoko eta SAREAko profesionalak osaturiko lan batzorde batek aukeratuko dituzte proiektuak. Batzordeak honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan:

- ❖ Musika-ikuskizunaren originaltasuna.
- ❖ Proiektu edo diskoen estreinaldia.
- ❖ Euskal Herriko ikuskizunek izango dute lehentasuna.
- ❖ Barruko agertokietarako egokitasuna.
- ❖ Antzokien askotariko ezaugarriak kontuan izanda, alderdi hauen arteko oreka bilatuko da:
 - Musika-estiloa.
 - Behar teknikoak.
 - Behar ekonomikoak.

Informazio gehiago: ruth@musikabulegoa.eus